



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urriaren 14a

114. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—10-22/PRO-00017. Foru Lege proposamena, Nafarroako Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorari buruzkoa. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—10-22/ITP-00038. Interpelazioa, Nafarroako errepede sareko errepede plana finantzatzeko Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (10. or.).

—10-22/MOC-00091. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen dira bularreko minbizi metastasikoaren arreta hobetu dezaten. Navarra Suma, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario Mistoak aurkeztu dute (11. or.).

—10-22/MOC-00092. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da euskararen eskakizuna derrigorrezkoa izan dadin Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantilla organikoan dauden logopeda lanpostuetako batean, gutxienez ere. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (12. or.).

—10-22/MOC-00093. Mozioa. Horren bidez, aitortzen da arte urbanoak, ondare eta arte arloko balio izugarria sortzeaz gain, hiriak eta bizigune txikiak dinamizatzen dituela. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (13. or.).

—10-22/DEC-00041. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorako Egun Nazionala ospatzearekin. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

—10-22/DEC-00042. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak eta toki entitateek indarrak batzen dituzten landa eremuetan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra bermatzeko. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- 10-22/PES-00301. Galdera, Sesmako “Egako 3” ureztalurreko presio-probari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (16. or.).
- 10-22/PES-00302. Galdera, Jurramendiko Mankomunitateko urak Sesman “Ega 3” ureztalurretan presio probak egiteko erabiltzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (17. or.).
- 10-22/PES-00303. Galdera, Kasedan herri-lurrak modu ezkutuan pribatizatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (17. or.).
- 10-22/PES-00304. Galdera, 65 urtetik gorako medikuen esku dauden atal- edo zerbitziburutzari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (19. or.).
- 10-22/PES-00305. Galdera, helikoptero medikalizatua mobilizatzearen inguruan egindako antolakuntza-aldaketei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (19. or.).
- 10-22/PES-00306. Galdera, desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Osasun Mentalerako Departamentuarterko Azpibatzeareari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (20. or.).
- 10-22/PES-00307. Galdera, desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Zuzendaritzako edo Aholkularitzako Kontseiluari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (20. or.).
- 10-22/PES-00308. Galdera, desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Departamentuarterko Batzorde Paritarioari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (21. or.).
- 10-22/PES-00309. Galdera, Sodena, Albyn eta CENen arteko akordioaren esparruan Kontsumo Zerbitzuetan erositako 2.000 maskara kirurgikoen banaketari era erabilerari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (21. or.).
- 10-22/PES-00310. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn arteko hitzarmenean soberan gelditutako maskareei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (22. or.).
- 10-22/PES-00311. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenean, diru publikoz finantzaturik, soberan gelditu eta bi enpresa pribatutan biltegitratuta dauden maskareei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (22. or.).
- 10-22/PES-00312. Galdera, Sodena, Albyn eta CENen arteko akordioaren esparruan Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak erositako FFP2 motako 1.000 maskaren banaketari era erabilerari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (23. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 10-22/PON-00001. Erabakia, zeinaren bidez ezeztatzen baita ponentzia bat sortzeko proposamena. Ponentzia “Nafarroako estepa-hegaziak berreskuratu eta kontserbatzeko plan”ari eta “Nafarroako agroestepak” izeneko babes bereziko eremua izendatzeari buruzkoa zen, horien beharra baloratzeko. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak ezeztatu du (24. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

10-22/PRO-00017. Foru Lege proposamena, Nafarroako Gizarte Ekin- tzako Hirugarren Sektoreari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Navarra Suma talde parlamentarioak talde parlamentarioak Nafarroako Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreari buruzko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gizarte Ekintzako Hiru- garren Sektoreari buruzkoa

HITZAURREA

Nafarroako gizartearen ezaugarrietako bat da ehundura sozial sendo eta anitza duela, herritarren ekimen asketik sortutako hainbat entitate osatua duela zenbait hamarkadatik. Entitate horiek solidaritate antolatua bideratzen dute, bai eta parte-hartze soziala ere, herritarrena, oro har, eta egoera, arazo edo behar sozial jakin batek eragindako pertsona, familia, talde, kolektibo eta komunitateena.

Gizarte ekintzako hirugarren sektorea da, eta estatuan eta zenbait komunitate autonomotan araudi espezifikoak badu ere, Nafarroan ez du horrelakorik.

Esan behar da definizio horrekin bat datozen entitateak dagoeneko aitortuta daudela Nafarroako zenbait legetan, hala nola Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean –gizarte zerbitzuen arloko ekimen pribatuko entitate esaten die– eta Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legean –nazioarteko lankidetzako eragiletzat jotzen ditu GGKEak–. Beste lege batzuek ere arautu dituzte, azaletik bederen, nagusiki arlo sozialean diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteak eta fundazioak, edo arlo sozialak beste esparru batzuekin dituen elkarreragin eremuetan dihardutenak –hala nola lan, osasun, hezkuntza, bizitoki, epailetza, kultura eta kirol esparruekin–.

Baina, hain zuzen ere, gaia zenbait arautan sakabanatuta egote horrek, gainera esparru horietan lan egiten duten entitateak askotarikoak direla kontuan hartuta, are komenigarriago egiten du arau bakar bat izatea, gizarte ekintzako hirugarren sektore izendapenarekin, entitateek halako entitatez joak izateko bete beharreko eskakizunak zehaztuko dituen.

Foru lege honen xedea da, beraz, aitortzea gizarte ekintzako hirugarren sektore hori osatzen duten entitateek funtsezko eginkizuna dutela Nafarroako gizartearen eta bertako politika publikoen garapenerako. Horretarako, alde batetik, politika horiei buruzko erabakiak hartzeko eremuetan duten zeregina sendotu behar da, bai eta haien parte-hartzea areagotu ere gizarte zerbitzuetako eta enpleguko erantzukizun publikoko sistemetan eta esku-hartze sozialekin lotutako sistemen arteko elkarreragineko eremuetan; eta, beste alde batetik, egiten duten lan garrantzitsuarekin ahalik eta modu arinenean eta efiziente-enean jarraitzeko aukera eman behar zaie, oztopoak kenduz eta haien jardura sustatuz.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektorea zehaztea eta sektore horrendako lege-esparru bat sortzea; horretarako, sektorea sustatzera eta sendotzea bideratutako neurriak hartu behar dira, gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateek haien artean eta sektore publikoarekin eta gainerako ekimen pribatuekin gauzatzen duten lankidetzaz bultzatu behar da, eta entitateek esku-hartze sozialaren esparruan oro har eta beren jarduera esparruarekin lotutako erantzukizun publikoko politiketan eta sistemetan zehazki parte hartzea eta ekarpenak egitea sustatu behar da.

2. artikulua. Kontzeptua.

Foru lege honetan aurreikusitako ondorioetarako, honako hauek dira Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateak:

a) Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legean zehaztutako Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeak.

b) Egoitza eta jarduera Nafarroan dituzten elkarteak, fundazioak, boluntarioria entitateak eta nortasun juridikoa duten ekimen pribatuko beste entitate eta erakunde batzuk, irabazi asmorik ez dutenak, 5. artikuluan zehaztutako jarduketa printzipioen mende daudenak eta xede nagusia honako hau dutenak: adinagatik, desgaitasuna izateagatik, mendekotasun egoeran egoteagatik, egoera sozioekonomikoagatik, genero-indarkeriagatik, sexu-joeragatik eta/edo bestelako faktore kultural edo sozialengatik zaugarritasuneko edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen, familien, taldeen, kolektiboekin eta komunitateekin gizarteratzea sustatzea eta horien eskubideak aitortzea eta osoki egikaritzea bultzatzea.

c) Egoitza eta jarduera Nafarroan dituzten elkarteak, fundazioak, boluntarioria entitateak eta nortasun juridikoa duten ekimen pribatuko beste entitate eta erakunde batzuk, irabazi asmorik ez dutenak, 5. artikuluan zehaztutako jarduketa printzipioen mende daudenak eta xede nagusia honako hau dutenak: osasun alorreko sustapena eta prebentzioa, odola eta ehunak ematea sustatzea edo norberaren autonomia eta mendekotasunaren prebentzioa sustatzea.

d) Nafarroako Gizarteratze eta Laneratze Enpresen kalifikazioaren, erregistroaren eta laguntzen araubidea ezartzen duen urriaren 26ko 94/2016 Foru Dekretuan aurreikusitako gizarteratze eta laneratze-enpresak eta ekimen sozialeko

enplegu-zentro bereziak, betiere, 5. artikuluan zehaztutako jarduketa printzipioen mende badaude.

e) Federazioak, plataformak eta beste sare batzuk, aurreko bi letretan aipatutako entitateetako gutxienez bik osatuak nagusiki, betiere, foru lege honetan ezarritako gainerako eskakizunak betetzen badituzte.

3. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru lege honetan xedatutakoa aplikatuko zaie Nafarroako Foru Komunitateko dagozkien erregistroetan gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitate gisa inskribatuta dauden entitateei.

4. artikulua. Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektorearen jarduera.

Foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, esku-hartze sozialeko jardueratzat jotzen dira Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateek 2. artikuluan aipatutako helburuetarako egiten dituzten jarduera guztiak, gizarte zerbitzuen esparruan eta esparru horren eta lan, osasun, hezkuntza, bizitoki, epailetza, kultura eta kirol esparruen arteko elkarreragin eremuetan egiten dituztenak, eta, zehazki, honako hauek:

a) Gizarte-bazterkeriarekin eta eskubideen urraketaekin lotutako egoerei buruzko sententsibilizazio, aldarrikapen eta salaketa jarduerak.

b) Ordezkatzen dituzten pertsonekin, familiekin, taldeekin, kolektiboekin eta komunitateekin zerikusia duten politikak zehazteko prozesuetan parte hartzea.

c) Elkartegintza, parte-hartze soziala, ehundura sozialaren sorrera eta boluntarioria sustatzea.

d) Behar sozialak hautematea eta ikerketan eta gizarte berrikuntzan jardutea.

e) Entitateak osatzen dituzten pertsonak, familiak, taldeak, kolektiboak eta komunitateak ordezkatzeko, babesteko eta defendatzeko ekintzak.

f) Norberaren autonomiarekin eta osasunarekin lotutako prebentzio eta sustapen ekintzak.

g) Herritarrei zerbitzuak ematea, administrazio publikoekin lankidetzan edo haiekin zerikusirik izan gabe.

h) Entitateen berezko xedeak lortzera bideratutako esku-hartzeekin lotutako beste jarduera eta proiektu batzuk egitea.

i) Bizikidetzaz, solidaritate eta parte-hartze sozialeko balioak sustatzea.

5. artikulua. Jarduketa printzipioak.

Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateek eta horiek egiten dituzten jarduketek, beren kasa edo beste entitate batzuekin edo sektore publikoarekin lankidetzan izan, printzipio hauen mende egon behar dute:

a) Parte-hartze soziala, oinarri soziala sendotzera zuzendutako ekintzen bidez, oinarri sozial horri eusteko edo hura areagotzeko; horretarako, lotura egonkorra izan beharko dute beren jardueraren hartzaile diren pertsonekin, familiekin, taldeekin, kolektiboekin eta komunitateekin, edo pertsona eta familia hartzaileek osatutako entitateak izan beharko dute.

b) Entitatearen baitan parte-hartze demokratikoa, aukera- eta tratu-berdintasuna eta diskriminazio-eza bermatzea, entitatearen forma juridikoari dagokion araudiak xedatutakoaren arabera, eta parte-hartzea eta berdintasuna sustatzea.

c) Gardentasunez jardutea xede sozialaren garapenean, funtzionamenduan, jardueren kudeaketan eta kontuak ematean.

d) Kudeaketan eta erabakiak hartzean, administrazio publikoekiko, alderdi politikoekeko eta sindikatuekiko autonomiaz jardutea. Foru lege honekin xedatutakoaren ondorioetarako, entitateak ekimen pribatukotzat joko dira erakunde gisa administrazioarengandik bereizita badaude eta beren burua gobernatzen badute; merkataritza-enpresek ezin dute parte-hartzerik izan haien gobernu-organoetan, eta administrazio publiko batek edo batzuek parte-hartzea badute, parte-hartze horrek ezin du izan % 49tik gorakoa.

e) Solidaritatea eta justizia, boluntarioritza eta elkarri laguntzea sustatuz eta balio horiek lortzeko eraldaketa soziala bultzatuz.

f) Boluntario-lana; boluntarioek, bazkideek, gobernu-organoetan ordainsaririk gabe parte hartzen duten pertsonak eta entitateari boluntario gisa laguntzen dioten pertsonak osatutako oinarri soziala izan behar dute.

g) Sare-lana, zeharkakotasuna eta lankidetzan helburuak lortzeko sustatu beharreko jarduera modu gisa.

III. KAPITULUA**Elkarrizketa zibila eta parte-hartzea****6. artikulua.** Elkarrizketa zibila.

1. Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateek, eta, haien bidez, esku-hartze sozialeko ekintzen hartzaile diren pertsonak, familiariek, taldeek, kolektiboek eta komunitateek, esku-

bidea izanen dute haiekin lotutako politika publikoetan parte hartzeko, fase guztietan, iritziak eman eta trukatzeko eta elkarrizketa irekia, noranzko biko, gardena eta etengabea izanez haiei buruz, hori guztia Nafarroako administrazio publikoen erabaki ahalmenen kaltetan izan gabe.

2. Sektore publikoaren eta gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateen eta sareen arteko elkarrizketarako eta lankidetzarako prozesu formala da elkarrizketa zibila, eta horren xedeak dira sektore publikoaren eta gizarte ekintzako hirugarren sektorearen politika sozialak eta bestelako ekimenak bideratzea, bultzatzea eta ebaluatzea esku-hartze sozialaren esparruan eta aurrerapausoak ematea entitate eta sare horien ekintzaren xede diren pertsonen eskubideak aitortze eta benetan egikaritze aldera.

3. Erregelamendu bidez landuko dira kapitulu honetan aurreikusitako elkarrizketa zibila gauzatzeko eta ebaluatzeko mekanismoak eta prozedura.

4. Nafarroako Parlamentuak eta toki-entitateek, haiek finkatutako tresnen bidez, ezaugarri beretako elkarrizketa irekia izanen dute beren lurralde-eremuan jarduten duten gizarte ekintzako hirugarren sektoreko sareekin eta entitateekin.

7. artikulua. Elkarrizketa Zibilerako Mahaia.

1. Elkarrizketa Zibilerako Mahaia sortuko da, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta gizarte ekintzako hirugarren sektorearen ordezkariak paritarioak osatua; ordezkari horiek izendatzean, kontuan hartuko dira entitateek Nafarroan dituzten ezarpen maila, ordezkagarritasuna eta eragin soziala.

2. Kontsulta-organoetan egiten den parte-hartzea edonolako dela ere, Elkarrizketa Zibilerako Mahaia izanen da tresna nagusia Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko sareekin eta entitateekin etengabeko eta noranzko biko elkarrizketa eraginkor bat izateko gobernu-ekintzari eta sareen eta entitateen ekintzari buruz; horitik, alderdietako edozeinek edo biek lankidetzan sustatu beharreko ekintza zehatzak sortuko dira, eta horien jarraipena eta ebaluazioa eginen da.

8. artikulua. Presentzia aholku-kontseiluetan.

Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitate bat egonen da, gutxienez ere, Nafarroako administrazio publikoetako aholku-kontseilu eta parte hartzeko organo guztietan; dagokion kontseiluaren edo organoaren esparru sektorialaren arabera eta entitateek Nafarroan duten ezarpenaren, ordezkagarritasunaren eta eragin sozia-

laren arabera zehaztuko da horien parte-hartzea eta kopurua.

9. artikulua. Jardueretan eta lantaldeetan parte hartzea.

Aurreko artikuluan xedatutakoaz gain, Nafarroako administrazio publikoek bermatu beharko dute Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko sareek eta entitateek parte hartuko dutela, beren ezarpenaren, ordezkagarritasunaren eta eragin sozialaren arabera, foru lege honetan aipatutako esku-hartze sozialeko esparruekin nolabaiteko lotura, zeharkakoa bada ere, duten planak eta programak diseinatzeko, lantzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko egiten diren jarduera, ekintza, mahai eta unean uneko edo aldizkako lantalde espezifikoko guztietan.

IV. KAPITULUA

Lankidetzaren eta laguntza politikaren publikoaren betearazpena

10. artikulua. Lankidetzaren erantzukizun publikoko sistemetan eta sistemen arteko elkarrekin eremuetan.

Nafarroako Administrazio Publikoak eta Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateek lankidetzaren jardun ahal izanaren dute esku-hartze sozialeko esparruetan eta erantzukizun publikoko sistemen arteko elkarrekin eremuetan zerbitzuak emateko.

11. artikulua. Lankidetzaren interes orokorreko beste gizarte jardueraren batzuetan.

1. Nafarroako administrazio publikoak eta Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateek sinergiak sorraraziko dituzte esku-hartze sozialaren esparruan egiten dituzten ekintzetan, eta kolektibo zaurgarriak beren eskubideak baliatzeko aukerak areagotzera eta gizarte zibil antolatua eta erantzukizun publikoko sistemak sendotzera bideratutako proiektuak sustatuko dituzte elkarlanean.

2. Horretarako, haien artean eta beste eragile sozial batzuekin partekatutako proiektuen kudeaketan jarduteko modu berritzaileak sortuko dituzte, horiek erantzukizun publikoko sistemen esparruan –proiektu pilotuen kasuan, bereziki– edo horietatik kanpo gauzatuta ere, behar sozialei eta horien bilakaerari erantzute aldera.

12. artikulua. Lankidetzaren eta laguntza tresnak.

1. Gizarte zerbitzuen eta osasunaren esparruetan eta esparru soziosanitarioan zerbitzuak emateko Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateekin gauzatzen den lankidetzaren, ahal

bada, Osasunaren eta Gizarte Zerbitzuen arloetako Itun Sozialak arautzen dituen azaroaren 16ko 13/2017 Foru Legean aurreikusitako itun sozialaren figuraren bidez egiten da.

2. Itun sozialaren figura ezin bada erabili, eta kontratazio publikoaren legedira jotzen bada, legedi horretan aurreikusitako aukera guztiak baliatuko dira gizarte ekintzako hirugarren sektoreak lizitazio prozeduretan parte hartzeko aukera izan dezan.

13. artikulua. Erantzukizun publikoko zerbitzuak ematean eta interes orokorreko gizarte jardueretan lankidetzaren jardutean Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateek dituzten betebeharrak.

1. Honako betebeharrak hauek dituzte erantzukizun publikoko zerbitzuak ematen dituzten edo interes orokorreko gizarte jardueretan lankidetzaren diharduten Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateek:

a) Kontratupeko langileentzat lan baldintza duinak bermatzea, erreferentziatzeko hitzarmen kolektiboekin eta dagozkien kontratuetan eta itunetan eta arauzko xedapenetan xedatutakoarekin bat, eta segurtasunaren eta laneko osasunaren alorreko xedapenak betetzen direla ziurtatzea.

b) Boluntarioentzat baldintza egokiak bermatzea, Boluntariotzari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legeak xedatutakoaren arabera.

c) Gardentasunez jardutea eta kontuak ematea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legean xedatutakoarekin bat.

d) Aztertzea zer eragin izanaren duen beren jarduerak gizartearen, ekonomiaren, ingurumenaren eta generoaren ikuspegitik, eta zerbitzuaren edo jardueraren hartzaile diren pertsonen eskubideetan eta aukeretan. Ondorio horietarako, eragin hori jaso beharko da entitateen jardueren memorian.

e) Prozedura parte-hartzaileak gauzatzea erabakiak hartzeko prozesuetan, erakundeko parte diren kolektibo guztiak kontuan hartuta, eta, bereziki, zerbitzuaren edo jardueraren hartzaile diren pertsonak.

2. Betebeharrak horiek betetzen direla bermatzeko, Nafarroako administrazio publikoak aldizkako kontrol eta ebaluazio sistemak ezarriko dituzte. Ildo horretatik, administrazio klausulen agiritan edo agiri baliokideetan adierazi beharko da betebeharrak ez badira betetzen, dagokion ituna, kontratua edo hitzarmena hutsaldu egiten dela.

V. KAPITULUA

Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektorea sustatzea

14. artikulua. Gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateak sustatzea.

Nafarroako administrazio publikoek Nafarroan gizarte ekintzako hirugarren sektore sendo bat izatea sustatuko dute. Xede horrekin, diruz laguntzen ahalko dituzte haren funtzionamendua eta jarduera, bai eta foru lege honen 3. artikuluan aipatutako ekintzak, jarduerak eta programak ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritako prozeduretako baten arabera emandako dirulaguntzen bidez eta egin beharreko inbertsioak eginez, ekintza, jarduera eta programa horiek gauzatu ahal izan ditzaten.

15. artikulua. Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateen arteko eta entitate horien eta beste entitate pribatu batzuen arteko lankidetzak sustatzea.

Nafarroako administrazio publikoek gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateen arteko eta entitate horien eta beste entitate pribatu batzuen arteko lankidetzak ekimenak sustatuko dituzte, esku-hartze sozialeko esparruetan interes orokorreko helburuak lortzen laguntzen ahal dutenak.

16. artikulua. Zenbait urtetarako dirulaguntzak.

1. Ahal bada, zenbait urtetarako emanen dira administrazio publikoek norgehiagoka prozeduren bidez edo zuzenean emateko deitzen dituzten dirulaguntza guztiak, Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateen edo sareen jardueretarako, ekintzetarako eta programetarako ematen direnak, betiere jarduera, ekintza edo programa horiek modu jarraituan egin badira deialdia egin edo dirulaguntza zuzena esleitzeko ebazpena eman aurreko lau urteetan gutxienez.

Zentzu horretan, ulertuko da jarduera, ekintza eta programa horiek hurrengo ekitaldietarako gastuak eraginen dituztela jotzen dela, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 30.3 artikuluan aurreikusitakoa aplikatze aldera.

2. Dirulaguntza zenbait urtetarako esleitu ahal izateko, entitateak edo sareak dirulaguntza ematen den lehenengo ekitaldian zehaztuko ditu hurrengo ekitaldietan gauzatu dituen helburuak eta ekintzak; dena den, horiek zehaztu edo aldatu egin ahal izanen dira urtero, gerora sortutako egoeren arabera.

3. Zenbait urtetarako emanen diren dirulaguntzak lau ekitalditarako emanen dira gehienez.

4. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluan araututako dirulaguntzei dagokienez, dirulaguntza zenbait urtetarako eman ahal izateko ezinbesteko baldintza izanen da emakidari dagozkion ekitaldietan zehar horretarako partida izendun bat egotea.

17. artikulua. Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektorea sustatzeko estrategia.

1. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateekin eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan, foru komunitateko gizarte ekintzako hirugarren sektorea sustatzeko estrategia bat landuko du hiru urtean behin, eta alderdietako bakoitzak bultzatu beharreko jarduerak eta horretarako koordinazio mekanismoak jasoko dira estrategian. Gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuak zuzenduko du estrategia horren lanke-ta.

2. Estrategiak 3 urteko indarraldia izanen du, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzei buruzko plan estrategikoarekin koordinatuta egonen da, eta Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateak eta horiek sortutako federazioak, plataformak eta bestelako sareak sendotzearekin lotutako helburuak eta neurriak jasoko ditu, bai eta horien ekarpen soziala sustatzeko eta esku-hartze sozialaren esparruan dituzten funtzioak garatzeko helburuak eta neurriak ere.

3. Estrategia landu aurretik, Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektorearen egoeraren diagnostiko bat egingen da, eta diagnostiko hori izanen du oinarri estrategiak. Estrategiaren indarraldiaren azken 3 hilabeteetan, ebaluatu egingen da.

Lehen xedapen gehigarria. Kontzeptuak bateratzea.

Kontzeptuak bateratze aldera, foru lege honetako xedapenak aplikagarri izanen zaizkie Dirulaguntzei buruzko azaroaren 5eko 11/2005 Foru Legean gizarte ekintzako entitate gisa izendatutako entitateei, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean jasotako gizarte zerbitzuetako gizarte ekimeneko entitateei eta foru lege honetan xedatutako eskakizunak betetzen dituzten eta araudi sektorialetan jasota dauden antzeko beste entitate batzuei.

Entitate horiei Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitate esanen zaie.

Bigarren xedapen gehigarria. Erregistro publikoen egokitzapena.

Foru lege honen 3. artikuluan xedatutakoa betetze aldera, foru lege hau indarrean jarri eta 6

hilabeteko epean gehienez ere, Foru Komunitateko Administrazioaren eta Nafarroako toki entitateen mendeko erregistro publiko guztiak egokitu beharko dira; eremu berri bat gehituko da horietan, inskribatuta dauden eta foru lege honetan xedatutako eskakizunak betetzen dituzten entitateak Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitate gisa identifikatzeko.

Hirugarren xedapen gehigarria. Kontratazioarekin eta itunekin lotutako gardentasun betebeharrak.

Urtero, Nafarroako Gobernuak kontuak emanen ditu Parlamentuan Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateekin egindako itun sozialen eta kontratu publikoen kopuruari buruz.

Laugarren xedapen gehigarria. Garapenerako lankidetzarako dirulaguntzak.

Foru lege honen V. kapitulua ez zaie aplikatu garapenerako lankidetzarako dirulaguntzei, Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen mende jarraituko baitute gai horietan.

Bosgarren xedapen gehigarria. 7/2009 Foru Legea aldatzea, ekainaren 5ekoa, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen %0,7 arautzeari buruzkoa.

Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legearen 1. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

Urtero, partida espezifiko bat izanen da Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, "gizarte-intereseko beste xede batzuetarako 100eko 0,7ko funtsa" izenekoa; PFEZaren aitorpena eta sozietateen gaineko zergaren aitorpena egitean "gizarte-intereseko beste xede batzuk" tributuei esleipena soilik hautatu duten zergadunen eta esleipen hori eta "Eliza Katolikoaren sostenguari laguntzea" esleipena hautatu dituzten zergadunen kuota osoen baturari 100eko 0,7 aplikatuzetik heldu den zenbatekoa jasoko du partidak.

Seigarren xedapen gehigarria. 2/2006 Foru Legea aldatzea, martxoaren 9koa, Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzkoa.

1. 2. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

"2. artikulua. Osaera.

1. Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak hogeita hamabi kide izanen ditu, lehendakaria barne.

a) Horietako zazpi lehen taldea osatuko dute; hots, Foru Komunitateko administrazioaren ordezkariena. Horien arteko bat, gutxienez, Nafarroako toki administrazioa izanen da.

b) Bigarren taldea sindikatuetako zazpi kidek osatuko dute.

c) Hirugarren taldeak zazpi kide izanen ditu, enpresaburuen elkarteetakoak.

d) Laugarren taldean zazpi kide izanen dira: bi ordezkari gizarte ekonomiaren sektorekoak, ordezkari bat kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteetakoak, bi ordezkari nekazari eta abeltzainen elkarteetakoak, ordezkari bat elkarte ekologistetakoa eta ordezkari bat Nafarroako Unibertsitate Publikoak hautatu beharrekoa.

e) Bosgarren taldeak bi kide izanen ditu, Foru Komunitateko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren sektorekoak.

f) Seigarren taldeak bi kide izanen ditu, Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateetakoak".

2. 2. artikulua 5 ter apartatua gehitzen zaio, testu honekin:

"5 ter. Seigarren taldearen ordezkari diren Kontseiluko kideak gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateek beraiek aukeratuko dituzte, erregelamendu bidez xedatutako prozedurari jarraituz".

Zazpigarren xedapen gehigarria. Elkarrizketa zibila gauzatzeko eta ebaluatzeko mekanismoak eta prozedura erregelamendu bidez garatzea.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik 6 hilabeteko epean gehienez ere, Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez garatuko ditu foru lege honen 6. artikuluan aurreikusitako elkarrizketa zibila gauzatzeko eta ebaluatzeko mekanismoak eta prozedura.

Zortzigarren xedapen gehigarria. Kontseilu aholku-emaileak eta partaidetza-organoak berraztertzea.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik 3 hilabeteko epean gehienez ere, Nafarroako Gobernuak bere kontseilu aholku-emaileak eta partaidetza-organoak berraztertuko ditu, foru lege honen 7. artikulua betetze aldera.

Bederatzigarren xedapen gehigarria.

11/2005 Foru Legea aldatzea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

Aldatu egiten da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 33.1 artikulua. Honako testu hau izanen du:

“1. Oinarri arautzaileetan aurkakorik adierazten ez bada, Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateei esleitzen zaizkien dirulaguntzak aurrez ordainduko dira, ordainketa batean edo zenbaitetan, eta bermeak ezartzen ahalko dira 300.000 euroko edo gehiagoko dirulaguntza aurrerakinatarako”.

Hamargarren xedapen gehigarria. 13/2007

Foru Legea aldatzea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 40.5 artikulua aldatzen da. Honako testu hau izanen du:

“5. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluan adierazitako dirulaguntzen kasuan, ezin izanen da gero-ko ekitaldien kargurako gastu-konpromisorik hartu,

Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreari bere araudian aurreikusitako moduan emandako dirulaguntzen kasuan izan ezik”.

Xedapen iragankor bakarra. Entitateak Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitatetzat jotzea.

Foru lege honen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzen ez den bitartean, dagozkien erregistroetan inskribatutako entitateek dagokion Departamentuaren txosten tekniko baten bidez frogatzen ahalko dute beren izaera, foru lege honen aplikazio esparruan sartuta egote aldera Nafarroako gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitatetzat joak izan daitezen.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/ITP-00038. Interpelazioa, Nafarroako errepide sareko errepide plana finantzatzeko Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak Nafarroako errepide sareko errepide plana finantzatzeko Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruz aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako

interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Errepideen IV. Plan Zuzendaria, egun idazketa-fasean dagoena, 2029. urtera arte luzatuko da, eta, estimazioen arabera, 1.300 milioi eurotik gora inbertituko dira lan berrietan, Nafarroa osoan zehar gauzatuko diren 250 lan ingurutan.

Errepideen plan hori betetzeko, ezinbestekoa da behar besteko finantzaketa bideak izatea, Nafarroako errepide sarearen premiei erantzun ahal izateko. Berriki, Nafarroako Parlamentuak bidesariak jartzea onetsi zuen, Europar Batasunak horretarako baimena eman ostean. Gaur egun, gure errepideetan lanak egin behar direla agerikoa bada ere, ez dago lan horiek egiteko plangintza ezartzen duen lan-ildo garbirik.

Hori horrela, interpelazioa aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari Nafarroako errepide sareko errepide planaren finantzaketaren gaineko politika orokorrari buruz.

Iruñean, 2022ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

10-22/MOC-00091. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen dira bularreko minbizi metastasikoaren arreta hobetu dezaten.

NAVARRA SUMA, NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS-AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Navarra Suma, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario Mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen baitira bularreko minbizi metastasikoaren arreta hobetu dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osasun Batzordean eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira bularreko minbizi metastasikoaren arreta hobetu dezaten.

Bularreko minbizia hasi zen eremu hartatik urrun dagoen beste eremu batera hedatzen denean, minbiziak “metastasia egin” duela esaten da. Metastasi hitza grezierako meta (“zerbaiten ondoren, beste modu batean, harago, beste leku batean” esan nahi du) eta stasis (“egotearen ekintza” esan nahi du) hitzetatik dator. Hortaz, “metastasi” edo barreiadura eremuari buruz hitz egiten da, eremu bakarra edo zenbait izanda ere, minbizia zenbait lekutara hedatu bada. Gaixotasunari bularreko minbizi metastasiko esaten zaio.

Gaixoen % 5 eta % 6 inguruk metastasia izaten du diagnostikoa egiten zaion unean, eta diag-

nostikoa estadio goiztiarrean jaso duten emakumeen % 30ek tumorearen berragerpena pairatuko dute, metastasiarekin.

Diagnostiko unean bularreko minbizi metastasikoak duten gaixoen erdiak baino gehiagok zenbait modalitatetako tokiko tratamenduak jasotzen dituzte, kirurgia eta erradioterapia nagusiki, bai eta tratamendu sistemikoak ere, hala nola kimioterapia, hormona bidezko terapia eta immunoterapia.

Gaur egun, bularreko minbizi metastasikoari ematen zaion erantzunak eta hari buruzko ikerketak gaixotasunaren aurrerapenari ahalik eta denbora luzeenaz eustea dute ardatz, eta, aldi berean, tratamenduen toxikotasuna saihesteko eta gaixoen bizi kalitatea hobetzeko ahalegina egiten da.

Espainian gaixo horien ordezkari den Bularreko Minbizi Metastasikoaren Espainiako Elkartearen nahiarekin bat eginez, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen ditu honako hauek egin ditzaten:

1. Bularreko minbiziaren aurkako botika edo tratamendu berrien onespina arindu dezaten, epeak laburtuz eta Europar Batasuneko gainerako herrialdeetakoekin parekatuz.

2. Osasun Sistema Nazionalak eta Nafarroako Osasun Zerbitzuak botika berritzaileak finantzatu ditzaten, kostua-efikazia erlazioa baloratuz, eta erabilera errukiorra kontuan hartuta, gaixoari beste bide batzuetatik lortu ezin diren abantailak dakarzkiotenean.

3. Diagnostiko goiztiarra hobetu dezaten, biomarkagailuen, genetikaren eta bularreko minbizi metastasikoaren biopsia likidoaren bidez.

4. Bularreko minbizi metastasikoarekin lotutako entsegu klinikoak eta ikerketa sustatu ditzaten. Gaixoei entsegu horietan parte hartzeko aukera eman diezaieten, edozein lekutan bizi direla ere, horrek ikerketari ekarpen garrantzitsua egiten ahal dionean.

5. Nazio mailan zein Nafarroako Foru Komunitatean bularreko minbizi metastasikoari buruzko erregistroak egin ditzaten.

6. Zerbitzuen arteko diziplinarteko koordinazioa sustatu dezaten, Nafarroako Osasun Zerbitzuan bularreko minbizi metastasikoa lantzeko eta tratatzeko jardueran.

7. Kasuen kudeaketarako erizaintza ezar dezaten Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Onkologia Medikoa Zerbitzuan, bularreko minbizi metastasikoa duten gaixoen arreta koordinatzeko.

8. Bularreko minbizi metastasikoa duten gaixoentzako txertatze protokolo espezifiko bat

landu dezaten Nafarroako Osasun Zerbitzuan.

9. Bularreko minbizi metastasikoa duten gaixoen osasun laguntza gizatiarragoa egin dezaten, gaixo horiei behar bezala laguntzeko eta harrera egokia egiteko.

Iruñean, 2022ko urriaren 4an.

Foru parlamentariak: Cristina Ibarrola, Patricia Fanlo, Ana Ansa, Bakartxo Ruiz, Mikel Buil eta Marisa de Simón

10-22/MOC-00092. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskararen eskakizuna derrigorrezkoa izan dadin Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantilla organikoan dauden logopeda lanpostuetako batean, gutxienez ere.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita euskararen eskakizuna derrigorrezkoa izan dadin Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantilla organikoan dauden logopeda lanpostuetako batean, gutxienez ere.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Pertsonen bizi-ziklo osoan zehar giza komunikazioaren, mintzairaren, hizketaren, ahotsaren, entzumenaren eta hitzezkoak ez diren ahozko

funtzioen azterketaz, ikerketaz, prebentzioaz, ebaluazioaz, diagnostikoaz eta tratamendu osoaz arduratzen den diziplina zientifikoa eta lanbidea da logopedia. Logopedek oinarritzko hiru esparrutan egiten dute lan: gizarte zerbitzuetan, ikaste-txeetan eta osasun sektorean.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan, 2009. urtean sortu zen Logopedia Unitatea, orduan Bideko Ama Birjina Ospitalea zeneko Errehabilitazio Zerbitzuaren baitan, ahots patologia zuten gaixoak artatzeko eta haien ahots arazoak tratatzeko. Hamarkada batez baino gehiagoz jardunean egon ostean, Logopedia Unitatean oraindik ere falta dira gaixo euskaldunak artatzeko behar besteko euskara maila duten langileak.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du euskararen eskakizuna derrigorrezkoa izan dadin Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantilla organikoan dauden logopeda lanpostuetako batean, gutxienez ere, euskaldunei osasun-laguntza hori eman ahal izango zaiela bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du euskararen eskakizuna duen plaza bat sar dezan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko logopedia espezialitaterako Lan Eskaintza Publikoko hurrengo deialdian. Eta bermatu dezan beti egongo dela euskararen behar besteko prestakuntza duen pertsona bat logopeda

plaza batean, unitate horretako langileen artean, plaza bere jabetzakoa izan edo aldi baterako kontratatuta egonda ere.

Iruñean, 2022ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

10-22/MOC-00093. Mozioa. Horren bidez, aitortzen da arte urbanoak, ondare eta arte arloko balio izugarria sortzeaz gain, hiriak eta bizigune txikiak dinamizatzen dituela.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Baztarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez aitortzen baita arte urbanoak, ondare eta arte arloko balio izugarria sortzeaz gain, hiriak eta bizigune txikiak dinamizatzen dituela

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Kultura eta Kirol Batzordean eztabaidatzeko, Nafarroako Foru Komunitatean arte urbanoa sustatzeko:

Arte urbanoa arte adierazpena da, eta, uste denez, Parisen du jatorria, baina Estatu Batuetan gertatu zen benetako eklosioa, 90eko hamarkadan. Hasieran, arte urbanoa salaketa sozialerako tresna izan zen, eta sena kritikoa zuen estetiko baina gehiago; askotan, bandalismoarekin eta behe-auzoekin lotuta egoten zen.

Denborak aurrera egin ahala, modernizatu eta hedatuz joan da, eta kultura garaikidean koka-

tuz sozialki; hori horrela, hiri eta herri txiki askotako paisaietan eta hormetan topa dezakegu. Adierazpen artistiko gisa, gero eta interes handiagoa eta jakintza gehiago sortuz joan da mundu mailan.

Nafarroako Foru Komunitateko hainbat udalerri arte urbanoaren aldeko apustua egin dute, eremu publikoak hobetzeko, duintzeko eta goratzeko. Tuteran, Zangozan, Uharten eta Iruñean bertan, besteak beste, leku garrantzitsu ugari daude, tokiko, estatuko eta nazioarteko egileen mota askotariko lanez gozatzeko aukera ematen dutenak.

Era berean, kaleak eta eraikin publikoak narriatu egiten direnez eguneroko higaduraren eta bandalismoaren ondorioz, arte urbanoa tresna egokia da horri aurre egiteko, eta kontuan hartu behar da degradazio hori ez dela estetiko soilik, herritar guztienak diren higiezinaren eta eremuen balio galeraren erakusgarri ere badelako. Arte urbanoak, gure pasealekuen erakargarritasuna areagotzeaz eta kultura sare bat sortzeaz gain, udalerrietako eraikinak eta hormak duintzen ditu neurri handi batean, sorkuntzen edertasunaren bidez.

Street art edo arte urbanoa, gainera, inplikazio eta dinamizazio sorburua ere bada ingurune jakin batean, tokiko artistek eta herritarrek auzoaren zainketan eta mantentze-lanetan indarrak batzea eragiten baitu; izan ere, zuzenean edo zeharka, kaleak apaintzen dituzten sorkuntzen sortzaile, parte-hartzaile edo konplize dira guztiak.

Beste alde batetik, arte urbanoak balio turistikokultural eztabaidaezina du, eta, horren erakusgarri, eremuen duintasunaren eta edertasunaren sustapenaren aldeko apustu garbia egiten duten hiriak eta udalerriak aukeratzen dituzte bidaiari askok (Street Art Tours). Turismo mota berri bat

sorrarazi du horrek, eta kontuan hartu behar da bisitatzen den ingurunearekiko errespetu handiz jokatzeko duen turismo mota bat dela gainera. Ildo horretatik, arte urbanoarekin lotutako jaialdiak eta lehiaketak sortu dira hainbat udalerritan, eta eragin dinamizatzailea izan dute zenbait eremutako esparru sozialean eta ekonomikoan (adibidez, Tuteran aurkeztu berri dute arte urbanoko lehiaketa bat).

Horregatik guztiagatik, eta Nafarroako Foru Komunitatean gure kultura eta turismoa sustatzeko aldera, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du arte urbanoak, ondare eta arte arloko balio izugarriak sortzeaz gain, hiriak eta bizigune txikiak dinamizatzen dituela turismoaren, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren ikuspegitik.

2. Nafarroako Parlamentuak honakoetara premiatzen du Nafarroako Gobernua:

- Egin dezala lanetarako laguntza eta finantziarioa emateko plan bat, hala eskatzen duten udalerriek baliatu ahal izateko, aldi berean lanak kontserbatzeko, zaintzeko eta babesteko balioko duena, aurkezten diren unetik bertatik eta handik aurrera.

- Sor dezala ibilbide kultural bat arte urbanoaren alorreko ondarea duten udalerritan nafarretan zehar, eta sustatu dezala ibilbidea turismoaren eta ondarearen ikuspegitik erakargarria den elementu gisa.

- Kultura eta Kirol Departamentuak sustatu ditzala herritarrak sentsibilizatzeko eta kontzientziazteko zikloak, topaketak eta kanpainak, arte urbanoko obrak ezagutarazteko, babesteko eta zaintzeko, eta arte urbano ez diren edo bandalismo huts diren elementuetatik bereizteko.

Iruñean, 2022ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

10-22/DEC-00041. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoroko Egun Nazionala ospatzearekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du, lehen aldiz, Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoroko Egun Nazionala ospatzearekin; Ministroen Kontseiluak urriaren 9an ezarri du eguna.

2. Nafarroako Parlamentuak aitortu nahi du pertsona guztien eskubideen, berdintasunaren eta gizarteratzearen alde diharduten gizarte entitateek egiten duten lan handia.

3. Nafarroako Parlamentuak eskerrak ematen dizkie gizarte entitate guztiei, egiten duten ahaleginagatik eta lanagatik, behar-beharrezko eragileak baitira gizarte bidezkoago baterantz aurrerapausoak emateko, eta, azken batean, Nafarroako eta Espainiako gizartearen kalitate demokratikoa areagotzeko”.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/DEC-00042. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak eta toki entitateek indarrak batzen dituzten landa eremuetan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra bermatzeko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak eta toki entitateek indarrak batzen dituzte landa eremuetan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra bermatzeko. Helburu hori lortzeko, aurrerapausoak eman behar dira emakumeen ahalduntzean, eta presentzia eta parte hartze aktibo handiagoa izan behar dute bizitzako esparru guztietan. Landa eremuko emakumeak ikusgarri egiteko eta aitortzeko konpromisoa hartuta dugunez, bat egiten dugu emakumeen elkarrekin egiten duten lanarekin eta haien aldarrikapenekin.

2. Nafarroako Parlamentuak ekarpen positiboak egiten jarraitzen du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrerapausoak emateko bizitzako esparru guztietan Nafarroako lurralde osoko udalerrri ugari eta askotarikoetan, jakitun baita horrek onura handiak dakartzala.

3. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna-
ren ospakizunarekin eta egun horrekin lotuta Nafarroa osoan egingo diren jarduerekin”.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

10-22/PES-00301. Galdera, Sesmako “Egako 3” ureztalurreko presio-probari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Sesmako “Egako 3” ureztalurreko presio-probari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarrita dagoenaren babesean, galdera hau aurkezten du, Jurramendiko Mankomunitateak idatziz erantzun dezan:

Mankomunitatearen ura erabili al da Sesmako “Ega 3” ureztalurretan presio-probak egiteko?

Noiz gertatu da da? Zergatik? Nork eskatu du?

Zer puntu zehatzetatik hartu da ura? Zenbat ur kontsumitu da? Zer neurri hartu dira mankomunitateko sarea ez kutsatzeko? Nork ordainduko du kontsumoa?

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

10-22/PES-00302. Galdera, Jurramendiko Mankomunitateko urak Sesman “Ega 3” ureztalurretan presio probak egiteko erabiltzeari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Jurramendiko Mankomunitateko urak Sesman “Ega 3” ureztalurretan presio probak egiteko erabiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarrean Erregelamenduan ezarrita dagoenaren babesean, galdera hau aurkeztu du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zergatik erabili dira Jurramendiko Mankomunitateko urak Sesman “Ega 3” ureztalurretan presio probak egiteko? Ba al dago horrelako beste probaren bat egiteko asmorik?

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

10-22/PES-00303. Galdera, Kasedan herri-lurrak modu ezkutuan pribatizatzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Kasedan herri-lurrak modu ezkutuan pribatizatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak galdera hauek aurkeztu

ten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu daitezten eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Heliosolar SL merkataritza-sozietateak udalerrian instalazio fotovoltaiko bat sustatzeko proiektu bat aurkeztu du Kasedako Udalan. Instalazio horrek lursail pribatuak zein herrilurrak hartuko lituzke.

Enpresak emandako informazioaren arabera, bi instalazio lirateke: Sangüesa I, hedadura 53,48 ha-koa izanen lukeena –horietatik, herrilurrak izanen lirateke 3,44 ha–, eta Sangüesa II, hedadura 48,71 ha-koa izanen lukeena –horietatik, herrilurrak izanen lirateke 6,57 ha–.

Gure talde parlamentarioak jakin duenez, proiektuaren eraginpeko herrilurren azalera ez litzateke izanen Heliosolar SL merkataritza-sozietateak txostenean adierazitakoa, handiagoa baizik, ez baitituzte herrilur gisa zenbatu proiektu

tuan proposatutako instalazioen esparruak har-
tzen dituen zenbait lurzati.

Honako galdera hauek egiten ditugu:

1.- Kasedako Udalak eman al du herrilurrak
desafektatzeko espedienteren bat Heliosolar SL
merkataritza-sozietateak sustatutako “Sangüesa I”
eta “Sangüesa II” instalazio fotovoltaiokoekin lotu-
ta?

2.- Herrilurren zer azalera sartu da proiektuan
proposatutako instalazioek hartuko lituzketen lur-
sailletako bakoitzean?

3.- Zein dira lursail bakoitzean herrilur gisa
sartu diren lurzatiak, zehazki? Poligonoa eta lurza-
tia adieraztea eskatzen dugu.

4.- Herrilurren Atalak eman al du horri buruzko
txostenik? Erantzuna baiezkoa bada, zein da
txostenaren edukia? Egin al da ikerketarik jakiteko
ea badagoen proiektuan herrilur gisa jaso ez den
herrilurrik instalazio fotovoltaiako horien lursailetan?

5.- 1947ko katastroan jada sartuta zeuden
egungo 65, 79 ½, 87, 90, 93, 97, 100, 101, 102,
116, 118, 129, 134, 137, 145, 146, 151 B, 153,
155, 157, 158, 159, 165, 168, 177, 181, 183, 184,
183 ½, 186, 195 eta 196 lurzatiak, 7. poligonokoak
guztiak, eta 6. poligonoko 83. lurzatia. Hori kon-
tuan hartuta, herrilurrak direnez, horietako batzuk
soilik desafektatzeko baimena emanen al da, eta
ez guztiak, merkataritza-sozietate sustatzailearen

proposamenak eta udalaren osoko bilkurak dioten
eran?

6.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko
6/1990 Foru Legeak honako hau dio 110. artiku-
luan: “Nafarroako entitate lokalek beren ondareko
ondasun eta eskubideak kontserbatu, babestu,
berreskuratu eta hobetzearen ardura dute, eta
horiek babesteko beharrezkoak diren ekintzak
burutu behar dituzte”; eta honako hau dio artikulua
horren beraren 4. apartatuan: “Foru Komunitateko
Administrazioak, entitate lokalari aldezturik
errekerimendua eginda eta horren kostura, subro-
gazioz erabil ditzake herri ondasunak eta jabego
publikoa dutenak babestu, kontserbatu eta
berreskuratzeko ahalmenak”. Hori kontuan hartu-
ta, departamentu eskudunak ba al du asmorik
subrogazio hori baliatzeko, benetan herrilurrak
diren arren –1947ko katastroko datuen arabera–
instalazio fotovoltaiakoen proiektuan lurzati pribatu
gisa jaso diren lurzatiaren titulartasun publikoa
defendatze aldera?

7.- Landa Garapeneko Departamentuak herri-
lurren pribatizazioa ahalbidetuko al du, ezkutuka
egin nahi dena, Kasedako Udalaren laguntza eta
babesarekin, ez baitira benetan herrilur diren lur-
zati guztiak aipatu Heliosolar SL merkataritza-
sozietateak sustatutako instalazio fotovoltaiakoen
hartuko lituzketen lursailen artean?

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

10-22/PES-00304. Galdera, 65 urtetik gorako medikuen esku dauden atal- edo zerbitziburutzei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, 65 urtetik gorako medikuen esku dauden atal- edo zerbitziburutzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

65 urtetik gorako medikuen esku dauden atal- edo zerbitziburutzak, eta okupazio horietako bakoitzaren iraupena legegintzaldi honetan zehar.

Iruñean, 2022ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/PES-00305. Galdera, helikoptero medikalizatua mobilizatzearen inguruan egindako antolakuntza-aldaketei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, helikoptero medikalizatua mobilizatzearen inguruan egindako antolakuntza-aldaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1- Osasun Departamentuak inolako antolakuntza-aldaketarik egin al du helikoptero medikalizatua mobilizatzeari dagokionez? Zein?

2.- Aldaketa horien ordezkotzat hautabide posiblei buruzko azterlanik ba al daukazu? Nork egina, eta zein egunetan?

3.- Osasun Departamentuak asmorik al dauka inolako antolakuntza-aldaketarik egiteko helikoptero medikalizatua mobilizatzeari eta/edo Nafarroako garraio sanitario urgenteari dagokionez? Zer aldaketa zehatz, eta zer kronogramarekin?

Iruñean, 2022ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/PES-00306. Galdera, desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Osasun Mentalerako Departamentuarterko Azpibatzordeari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Osasun Mentalerako Departamentuarterko Azpibatzordeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion.

1.- Zenbat aldiz, zer datatan eta zer gaitzerrendarekin bildu da Desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Osasun Mentalerako Departamentuarterko Azpibatzordea?

2.- Nor eta zer esparruren ordezkari gisa gonbidatu da bilkura horietako bakoitzera?

Iruñean, 2022ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-22/PES-00307. Galdera, desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Zuzendaritzako edo Aholkularitzako Kontseiluari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Zuzendaritzako edo Aholkularitzako Kontseiluari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion.

1.- Zenbat aldiz, zer datatan eta zer gaitzerrendarekin bildu da Desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Zuzendaritzako edo Aholkularitzako Kontseilua?

2.- Zer gizarte eragileri eta erakunderi egin zaie deialdia bilkura horietako bakoitzerako?

Iruñean, 2022ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-22/PES-00308. Galdera, desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Departamentuarterko Batzorde Paritarioari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Departamentuarterko Batzorde Paritarioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion.

1.- Zenbat aldiz, zer datatan eta zer gaitzerrendarekin bildu da Desgaitasunari buruzko 2019tik 2025era bitarteko Planeko Departamentuarterko Batzorde Paritarioa?

2.- Nor eta zer esparruren ordezkari gisa gonbidatu da bilkura horietako bakoitzera?

Iruñean, 2022ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-22/PES-00309. Galdera, Sodena, Albyn eta CENen arteko akordioaren esparruan Kontsumo Zerbitzuak erositako 2.000 maskara kirurgikoen banaketari era erabilerari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Sodena, Albyn eta CENen arteko akordioaren esparruan Kontsumo Zerbitzuak erositako 2.000 maskara kirurgikoen banaketari era erabilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Non banatu ziren Kontsumo Zerbitzuak Sodena, Albyn eta CENen arteko akordioaren esparruan erositako 2.000 maskara kirurgikoak?

2. Zenbat erabili dira?

3. Zenbat geratzen dira erabili gabe eta zergatik?

Iruñean, 2022ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/PES-00310. Galdera, Sodena, CEN eta Albynen arteko hitzarmenean soberan gelditutako maskarei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Sodena, CEN eta Albynen arteko hitzarmenean soberan gelditutako maskarei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak zergatik ez zituen gorde CEN-Sodena-Albyn hitzarmeneko gaineratitako maskarak?

Iruñean, 2022ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/PES-00311. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenean, diru publikoz finantzaturik, soberan gelditu eta bi enpresa pribatutan biltegitratuta dauden maskarei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenean, diru publikoz finantzaturik, soberan gelditu eta bi enpresa pribatutan biltegitratuta dauden maskarei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1- Zergatik daude bi enpresa pribatutan biltegitratuta Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenean soberan gelditutako eta diru publikoz finantzaturitako maskarak?

2- Nork erabaki du hori?

3- Zergatik erabiltzen da maskaren biltegitratze horretan ere enpresa pribatu bat, hitzarmenarekin zerkusirik izan ez duena?

Iruñean, 2022ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/PES-00312. Galdera, Sodena, Albyn eta CENen arteko akordioaren esparruan Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak erositako FFP2 motako 1.000 maskaren banaketari era erabilerari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Sodena, Albyn eta CENen arteko akordioaren esparruan Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak erositako FFP2 motako 1.000 maskaren banaketari era erabilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Non banatu ziren Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak Sodena, Albyn eta CENen arteko akordioaren esparruan erositako 1.000 FFP2 maskarak?

2. Zenbat erabili dira?

3. Zenbat geratzen dira erabili gabe eta zergatik?

Iruñean, 2022ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

10-22/PON-00001. Erabakia, zeinaren bidez ezeztatzen baita ponentzia bat sortzeko proposamena. Ponentzia “Nafarroako estepa-hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko plan”ari eta “Nafarroako agroestepak” izeneko babes bereziko eremua izendatzeari buruzkoa zen, horien beharra baloratzeko.

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAK EZEZTATU DU

2022ko urriaren 4an egindako bileran Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak ezeztatu zuen José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako proposamen bat, ponentzia bat sortzekoa. Ponentzia “Nafarroako estepa-hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko plan”ari eta “Nafarroako agroestepak” izeneko babes bereziko eremua izendatzeari buruzkoa zen, horien beharra baloratzeko.

Iruñean, 2022ko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
